

## EKINTZA HUMANITARIO ETA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA 2021

**Aurrekontua** 50.972 €

### Irizpideak

- Erakunde bakoitzeko eta urteko esku-hartze bat.
- Esku-hartze bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 16.990 €<sup>1</sup>

**Nola?** Eskaerak aurkezteko bi aukera daude:

- [Telematikoki](#) On line Udal Webguneko Bulego Birtualean
- [UdalInfo-ko Bulegoetan](#)

**Noiz?** Urte osoan zehar partida agortu arte

### [Eskaera inprimakia](#)

### Baldintzak

#### Erakundearen betekizunak:

- Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua izatea.
- Helburuen artean ekintza humanitariorako eta/edo larrialdietako laguntzarako programen kudeaketan esperientzia nahikoa izatea eta/edo egiaztatzea.
- Esku-hartzeko bi eremu horietan esperientzia egiaztaturik ez duten GGKEak ere onuradun izan daitezke, baldin eta diru-laguntzaren helburua bada Donostiako Udalaren laguntzarekin gauzatutako garapen-proiektuak kaltetzen edo arriskuan jartzen dituzten gatazka edo hondamendi-egoerei erantzutea.
- Hirian presentzia izatea.
- Herritarren Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea eta dokumentazioa eguneratuta edukitzea.

#### Proiektuen betekizunak:

- Zehaztutako larrialdiko esku-hartze motara egokitzea.
- Printzipio humanitarioak errespetatzeko bermeak (gizatasuna, independentzia, inpartzialtasuna eta neutraltasuna).
- Toki-erakundea. Eragindako lekuan esku hartzeko gaitasuna.
- Erakunde eskatzailearen eta esku-hartzea gauzatzen duen toki-erakundearen arteko harremana (jarraitutasuna, arintasuna, etab.).

---

<sup>1</sup> muga hori urteko azken lauhilekoan gainditu ahal izango da, baldin eta proiektuaren ezaugarriek hala justifikatzen badute